

HITZ BITAN

Seme kutuna, etxean otso

JORDAN, CHICAGON. Wizardsekin, bere egungo taldearekin, jipoitu egin zuen Bulls (107-82)

Dani Gibelalde | DONOSTIA


Iraganeko izarra ahaztu ezinda, oraindik ere, bihotzean daramate Chicagoko zaleek Michael Jordan, beren seme kutuna. Beste talde bateko elastikoa zeraman arren, saskibaloiak emandako jokalaria onenari sekulako harrera egin zioten Chicagoko jarraitzaileek Washingtonen aurkako partidari; bi minutu baino gehiagotxalotu zuten. Alabaina, Jordan ikustea izan zen etxekoek izan zuten poz bakarra, partidak ez baitzuen kolorerik izan.

Jordanek sei liga eman zizkion Chicago Bullsi, eta hori ez dute ahaztu Uniter Centerreko zaleek. Garai hartan, garaitezi-

na zirudien talde hark: jokalaria bikainez beterik, eta guztien buru, Michael Jordan izarra.

Egun, bestelakoa da talde horren irudia. Oso gaizki ari dira jokatzeko, ia partidarik irabazi gabe, burua altxatu ezinda, eta joko negargarria egiten. Hala, zaleek itxaropen urria dute oraingo taldearekin. Jordanen garaia dute gogoan, iraganeko garaia.

Partidari dagokionez, Wizardsek jipoi galanta eman zion Jordanen talde ohiairi (107-82). Gauza handirik egin gabe irabazi zuten kanpotarrek. Etxekoak izan ziren barregarri aritu zirenak. Halere, Jordan ez zen bere taldea gehiago txikitzen ahalegindu: 10 puntu lortu zituen,



JOHN ZICH/ EPA

Michael Jordan, saskira bidean, Bulls-en aurkako partidari.

MICHAEL JORDAN

Washington Wizardseko jokalaria

«Oso pozik nago, Chicagoko zaleek maite nautelako. Haiek lagundu zidaten jokalaria egiten»

gauza handirik egin gabe. Partidako azken laurdena aulkitik ikusi nahiago izan zuen. «Partida geuk irabaziko genuela ikusi nuen 32 puntuko aldea lortu genuenean. Ez zegoen aurkaria txikitu beharrik. Beste kasu batzuetan bai, baina ez Bulls-en aurka», adierazi zuen.

Gainera, pozik azaldu zen zaleen harreragatik. «Oso pozik nago, Chicagoko zaleek maite nautelako. Haiek lagundu zidaten jokalaria egiten, eta horregatik, oso gogorra da haien aurka jokatzeko».

Hilaren 24an, berriro jokatu du Jordanek Chicagon, eta baliteke hori izatea bertan profesionaletan jokatu duen azken partida.

RALLYAK. Europa utzi eta Afrikara abiatu ziren atzo Dakar Rallyko gidariak



MANUEL BRUQUE / EFE

Peterhanselek eta Saincktek lidergoari eutsi diote

Stephane Peterhansel (Mitsubishi) eta Richard Sainct (KTM) frantziarrek eusten diete, hurrenez hurren, 2003. urteko Dakar Rallyko autoetako eta motoetako sailkapen nagusiko lehen postuei. Castelloko hondartzetan jokatu zen atzo hirugarren etapa. Mitubishi etxeko Masuoka japoniarrak irabazi zuen atzokoa, Peterhansel eta Henrarden au-

rretik, baina 29 segundoko aldea kentzen dio Peterhanselek Masuokari sailkapen nagusian. Motoetan, Despres frantziarrak irabazi zuen atzokoa ere —aitzin-etapa ere berak irabazi zuen—, Verhoef eta Comaren aurretik. Atzokoa izan zen Europar jokatu duen azken etapa. Bukatu eta berehala abiatu ziren gidariak Tunisiara (argazkian).

ESKUBALOIA

Euskadiko selekzioak adiskidantzazko partida bat jokatu du Argentinakoaren kontra hilaren 7an

Basauriko Artunduaga Kiroldegian jokatu du Euskadiko selekzioak heldu den asteartean, Argentinakoaren kontra. Bizkaiko Eskubaloia Federazioak eta Basauriko emakumezkoen eskubaloia taldeak antolatutako partida da. Hiru aste barru inguru hasiko da Munduko Txapelketa, Portugalen, eta hura prestatzera etorri da Euskal Herrira Argentinako selekzioa. Al-tube hautatzaileak ez du jakinarazi oraindik nortzuk ariko diren euskal selekzioarekin. Argentinako jokariak: Gabriel Canzonero, German Pardaies, Fernando Garcia, Andres Kogovsek, Martin eta Gonzalo Viscovich, Santhago Acetti, Roberto Moriacco, Rodolfo Jung, Juan Ojea, Alejandro Marine, Bruno Civelli, Alejo Ferrara, Lucas Cruz, Leonardo Querin, Eric Gull, Gonzalo Cargu, Sergio Crevatin eta Cristian Platti.

SASKIBALOIA

Kobe Bryantek AEBekin aritu nahi du Atenasko Olinpiar Jokoetan

Los Angeles Lakers taldeko Kobe Bryantek AEBetako federazioari adierazi dio selekzioarekin aritu nahi duela Atenasko Olinpiar Jokoen sailkapen fasean lehenengo, eta Jokoetan ondoren, «eskubidez geurea denarekin bueltatzeko».

TENISA

Hopman Kopako finala jokatu dute gaur Australiak eta AEBek

Perthen jokatu du gaur, Australian, Hopman Kopako finala: Australia-AEB. Alicia Molik eta Leyton Hewitt ariko dira etxeko taldearekin eta Serena Williams eta James Blake dira AEBetako izarrak. Ikusmin handia sortu du finalak.

SEGA

Elkartzeko deia egin dio Erasunek Mitxelenari

Iazko uztailetik, Pikoketako zelaian elkarren kontra aritu zirenetik, ados jarri ezinda dabilta Erasun eta Mitxelena kitarakoa non, noiz eta nola jokatu erabakitzeko. Hainbat bilera egin dituzte, zenbait kontutan ados jarri ere bai, baina azken hilabeteetan ez aurrera ez atzera dago apustua. Behin betiko baldintzak ezartzeko, elkartzeko deia egin dio Erasunek Mitxelenari: hilaren 11n, Tolosako Cantabrico tabernan (19:00-20:00).